

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Akatsen zuzenketa, 2022ko abenduaren 19ko ALHAOn (145 zenbakia) argitaratutako 2022/3438 iragarkian, 2022ko enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzaren onarpenaren oinarri orokorrak onartzeari buruzkoa

2022ko abenduaren 19ko ALHAOn (145 zenbakia) argitaratutako iragarkian, 8.1 oinarriaren testuan akatsa nabaritu denez, honen bitartez zuzendu egiten da. Hartara, 8.1 oinarria zuzendu ondoren, berridatzi eta argitaratu egiten da.

“8.1. – Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

– Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

– Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da hori.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 7.2 oinarrian jasotakoaren arabera.”

Aramaion, 2023ko apirilaren 26an

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE